



Helburua, eguneroko joan-etorrietan ibilgailua partekatzeko ParteCar aplikazioaren erabilera sustatzea da

Erronka amaitzean, ekitaldi bat egingo da non besteak beste, CO2 isuria murrizten ekarpen handiena egin duten gidaria eta bidaiaria sarituko dira

Bi hilabete eskasean, 110 erabiltzaile baino gehiago erregistratu dira, 32.000 km partekatu dira bidaietan eta 4.500 kG CO2 eta 15.000 kg NOx isurpen gutxiago izan dira

Bi hilabete eskasean, 110 erabiltzaile baino gehiago erregistratu dira ParteCar aplikazioan. Bildutako kopuruen arabera, bidaietan egindako 32.000 km partekatuak izan dira eta 4.500 Kg CO2 eta 15.000 kg NOx gutxiago isuri dira eguratsera.

Beasaingo Udalak, mugikorrerako Hoop Carpool aplikazioarekin lankidetzan, #ParteCar ekimena jarri zuen martxan duela bi hilabete. Tresna erabilgarri eta erraz honen bidez, beasaindarrak lanera edo ikastegira joateko, eguneroko joan-etorrietan autoa partekatu ahal izatea da xedea.

Euskadin tokiko erakunde batek honelako ekimen bat abian jartzen den

lehen aldia izan da. Honela bada, herritarrei antzeko mugikortasun-errutinak dituzten pertsonekin harremanetan jartzeko aukera eman nahi zaie. Eguneroko joan-etorrietan autoa partekatuz gastuak banatu, denbora aurreztu, isurpen kutsagarriak gutxitu eta erregaien kostuaren igoerari aurre egiteko aukera izango da.

Biztanleri osoaren erronka

ParteCar ekimenaren baitan, aipatutako helburuak bete eta bultzatzen jarraitzeko, Beasaingo Udalak #GoazenElkarrekin erronka martxan jarri du. Horretarako beasaingar guztien laguntza behar du. Biztanleri osoari zuzendutako erronka, 2023ko urtarrilaren 31a baino lehen 2.500 kg CO2 gutxiago isurtzea da. ParteCar aplikazioan erregistratzen diren bidaietan autoa partekatzen den heinean, erronkan ezarritako kopuruak kalkulatzeko joango da.

Helburua lortzearen onurak

Ingurumenara CO2 emisio gutxiago isurtzeaz gain -zehazki, 125 zuhaitzek urtebetean xurgatzen duten CO2aren baliokidea-, eta erregai gastuak murrizteaz gain, herritarren parte-hartzea eta lankidetzasarituko dira. Erronka amaitzean ekitaldi berezia antolatuko da jendarteko gosaria eginez eta sari berezi bat emango zaie emisioak murrizten gehien lagundu duten gidariari eta bidaiariari: bi lagunentzako gau bateko egonaldia hotel batetan.

Harrera bikaina

Duela bi hilabete abian jarritako partecar ekimenak 110 erabiltzaile baino gehiago ditu erregistratuta aplikazioan. Kopuruei dagokionez, orain arte 32.000 km baino gehiago partekatu dira desplazamenduetan, 4.500 kg CO2 eta 15.000 kg NOx baino gehiago eguratsera ez isurtzea lortu da. Guztira 660 bidaiaria baino gehiago partekatu dira eta 555 bidaiari-ibilbide eta 585 gidari-ibilbide argitaratu dira. Alderdi ekonomikoari dagokionez, ParteCar.e bitartez 3.500 euro inguru aurreztu dira erregaian.

Gogoratu behar da Beasain abiapuntu edo helmuga duten bidaiak % 50eko dirulaguntza jasotzen dutela aldi batean (gehieneko prezioa ibilbide eta bidaiari bakoitzeko 3 €). Komunitateko kide izateko eta Beasain abiapuntu edo helmuga duten bidaietan autoa partekatzeko, Beasain udal aplikaziotik deskarga daitekeen [ParteCar Hoop Carpool](#) aplikazioan erregistratu eta BEASAIN22N kodea sartu behar da.

Udal-ekimen honek eragin zuzena du udalerriaren eta bertako herritarren ongizatean. Ingurumena babestea eta klima-aldaketaren aurka eragitea, udalak berea egiten duen konpromisoa da.

“Goazen elkarrekin” erronka abiarazi du Udalak partekatutako autoaren erabilera sust

Azken eguneratzea: Ostirala, 23 Abendua 2022 10:01

Argitaratua: Asteartea, 20 Abendua 2022 17:00

Erronkaren baldintza guztiak kontsultatzeko eta parte-hartzaileen zerrenda begiratzeko, Hoop Carpoolen [webgunean](#) sartu behar da, Beasaingo erronka atalean.